

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza <sup>info</sup>

Asteartea, 2010eko azaroaren 23a. VIII. urtea. 2.127. zenbakia. [www.tolosaldea.hitza.info](http://www.tolosaldea.hitza.info)



A. ETXANIZ

→ **Tourreko lehen euskaldunak Urkamendin.** Zizurkilgo Urkamendi elkarteak orain 25 urte omentzen du Frantziako Tourren parte hartzen duen lehen euskalduna. Aurten, hala ere, hitzordu berezia da urteurrenarengatik eta hau ospatzeko bazkari berezia izan zuten pasa den asteburuan. Aurten Juanma Garateri eman diote saria, baina Urkamendin bestelako txirindulariak ere bildu ziren, Marino Lejarreta, Abraham Olano, Mikel Astarloza, Txente Garcia, Haimar Zubeldia, Iker Carmaño eta Eneritz Iturriagaetxeberria, besteak beste. 04

## Olasagastik Arrospide harrapatu du

Igeldokoak irabazi du Maila Nagusiko Aizkolari Txapelketa seigarren aldiz, Leaburukoaren marka berdindu duelarik; jende asko izan zen Asteasuko finalean 06

## Jose Mujika eta Mikel Azarola babarrun onenen egileak

Pasa da Tolosako Babarrunaren Astea; bazkariak izan dira, Azoka Berezia eta baita txapelketa ugari ere, horien artean Babarrun Ekoizleen Lehiaketa eta Txapelketa Gastronomikoa 02

## Batzar irekia egingo du Anoetako ezker abertzaleak larunbatean

Udal hauteskundeak prestatzeko helburuz egin dute deialdia; herritarrei galdera sorta bat bidali diete eta erantzunak jaso zain daude 03

## Arropa azoka txikia Emakumezkoak zein gizonezkoak Marka ezagunenak merkeenen pare

Azaroaren 22tik  
abenduen 4ra

**15 egun  
bakarrik!!**

L.a.n.  
distribución



Astelehenetik Ostiralera: 10:00etatik 18:00etara (jaguerdian irekiko)  
Larunbatak: 10:00etatik 14:00etara

Zizurkildik Asteasurako bidean biribilgunetik 200 metrotara  
Erniobidea 23, Elbarrena auzoa (Zizurkil) 943 69 04 24



Azaroaren 30 arte %10eko  
deskontua iragarkia erakutsiaz

**%10 deskontua**

San frantzisko, 21 - Tolosa • tel.: 943 65 27 46

# Migel Zalakain gogoratuz hitzaldia bihar udaletxean

Mitxel Sarasketa eta Begoña Sagarzazu preso ohiek eskainiko dute 19:00etatik aurrera

**Erredakzioa** Villabona

Migel Zalakain billabonatarren XX. urteurrena gogoratuko dute bere herritarrek. Gogoan dute duela 20 urte herriak jaso zuen albiste txarra. Migel bihotzekoak emanda hil zen Martuteneko espetxean. Amnistiaren Aldeko Mugimenduak gogorazati nahi izan duenez, «Españiar estatuko espetxe askotako ziegak ezagutu behar izan zituen. Bere gai-xotasunaren jakitun ziren espetxe agintariak baina kasurik egin gabe, beharrezko tratamenduak lortu ahal izateko borroka egin behar izan zuen. Medikuntza

kaxkarraren ondorioz hil zuten». Hogei urte geroago, espetxe politikak «bere horretan» jarraitzen du.

## Mitxel Sarasketa

Bihar 19:00etan Villabonako udaletxean izango dira Mitxel Sarasketa eta Begoña Sagarzazu preso ohiak. Mikel Sarasketa preso ohia izateaz gain, idazlea da. Migel Zalakain heriotzaren XX. urte-muga dela eta antolatua izan da.

Mitxel Sarasketa euskal itzultzailea da. Hogei urteko kartzelaldia bete zuen lehen euskal preso politikoa izan zen. Preso zegoela lizentziatu zen kazetaritzan eta euskal filologian, eta espetxetik hainbat liburu itzuli zituen, tartean *Bobby Sands, Egun bat nire bizitzan* edo Joseba Sarrionandiaren kiber batera itzultitako *Hamahiru ate*. Itzultzailea izateaz gain, preso-en aldeko mugimenduan bere esperientzia ekarriko du.

## → Laburrak

### Adimen emozionalari buruzko hitzaldia, gaur

**TOLOSA** › Adimen emozionalen aditu den Begoña Ibarrola psikologoak 0 eta 3 urte bitarteko gurasoei zuzenduriko *Haur zoriontsuak nola hezi* hitzaldia emango du gaur. 17:15ean izango da, Hirukideko haur eskolan.

### Farnaziak

#### GAUR

- **Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.
- **Betelu.** Carrillo, A. Nagusia, 5.
- **Irurtzun.** Mutilloa, A.M. San Martin, 5. 112.

### Poxpolo ta Konpainiak bi saio eskainiko ditu

**TOLOSA** › Abenduaren 26an Poxpolo ta Konpainiaren *Segi jotzen* emanaldia izango da Leidorren. Duela egun gutxi jarri ziren txartelak salgai, eta dagoeneko ia guztiak saldu dituzte. Hori dela eta, eguerdiko emanaldiaz gain, bigarren saio bat eskaintzea erabaki dute, egun berean, 17:00etan. *Kutxa.net* bidez eskura daitezke sarrerak.

### Orfeoiaien kontzerturako sarrerak salgai daude

**TOLOSA** › Tolosako Orfeoiaien Eguberrietako kontzertua emango du abenduaren 22an, 20:30ean Leidorren. Sarrerak orfeoiaileen bidez, Leidorren edota Orfeoiaien Nafarroa etorbidean duen egoitzan eskura daitezke, 12 euroan.

Jose Mujika › Babarrun Ekoizleen Lehiaketako irabazlea

# «Saria lana ondo egin dudanaren seinale da»

**Rebeka Calvo** Tolosa

Legorretako Jose Mujika Garmendiak irabazi du XXII. Tolosako Babarrun Ekoizleen Lehiaketako lehen saria. Bigarren saria Albizturrera joan da, Alberto Labaka Elolaren eskuetara, eta hirugarrena ere eskualdean geratu da, Zizurkilgo Juan Jose Argote Zuriarainek jaso du, hain zuzen. Aurtengo txapeldunak 200 euro, garaikurra eta txapela eraman ditu etxera. Ez da, baina, irabazten duen lehen aldia. 1999. urtean irabazi zuen lehen txapela, 2002an hirugarren izan zen, 2005ean bigarren, 2008an ere bigarren eta pasa de urtean irabazlea.

## Zer esanahi du zuretzat sari honek?

Lana ondo egin dudanaren seinale da sari hau. Hori da garrantzitsuena niretzat. Ez nuen espero irabaztea, baina itxaropena ez duzu gaitzen. Ilusio ikaragarria egiten dit.

## Nolakoa da aurtengo babarruna?

Aurtengo alea oso ona izan da, iaz



Jose Mujika Garmendia saria jasotzen Jokin Bildarratzen eskutik. R. CALVO

ere ona izan zen, baina aurtengoa asko dago eta oso ona, gainera. Urte ona izan da. Gaur egun ale txikiagoaren bila doaz ekoizleak, finagoa geratzen baita jateko.

## Zure babarruna nabarmendu du epaimahaiak. Zer egiten duzu zurea beste ekoizleenarekin bereiztu ahal izateko?

Ondo zaindu behar dira. Ondo

helduta daudenean bildu behar dira. Behin heldu direnean ez baidituzu jasotzen, galdu egiten dira. Ondoren, ondo lehortu behar dira, batzuk berogailu eta guzti erabiltzen dute, baina nire ustez ez zaie ezer berezia egin behar, lehortzen utzi eta kito, hori da sekretua, garai batean bezala egitea.

Mikel Azarola › Lehiaketa Gastronomikoko irabazlea

# «Babarrunak bezain garrantzitsua da ura»

**Iñigo Terradillos** Tolosa

Tolosako Babarrunaren Asteari amaiera emateko Gure Kaiola elkartearen eskutik 500 laguntzat bazkaria egin zuten herenegun Zerkauskian. Aurretik, 20 bikotek parte hartu zuten Tolosako Babarrunaren Lehiaketa Gastronomikoa egin zuten. Mikel eta Simon Azarola izan ziren irabazleak.

## Hainbatetan parte hartu eta gero, azkenean jaso duzue saria.

Bai, oso pozik gaude aita eta biok, ez baikenuen irabazterik espero. Hamabi aldiz hartu dugu parte, eta bigarren eta hirugarren sariak lortuak ditugu, baina ez dugu inoiz lehen saririk eskuratu.

## Zein da babarrunak prestatzeko zuek sekretua?

Kilo bat babarrun sukaldatu dugu, eta une oro gainean egon gara, zainduz eta mimatuz. Ez da gauza gisa horretan prestatzea edo norbere etxean prestatzea.



I. TERRADILLOS

## Baina, izango du zuen platerak besteengandik desberdintzen duen ezaugarririk.

Nik beti esan izan dut babarrunak bezain garrantzitsua ura dela. Horregatik, beti saiatzen gara ahalik eta ur garbiena erabiltzen, izan ere, iturri guztietatik ez da ur bera irteten. Horrez gain, tipula gorria eta oliba olio erabili

dugu. 15 minutuz su altuan eduki dugu, irakiten hasi arte, eta ondoren, su epelean 2 orduz. Piper berdea eta gatza erantsi ditugu ondoren.

## Zer moduzkoa da aurtengo babarrun irabazlea?

Atzokoa bezain babarrun ona ez dut aspaldian ikusi. Oso ale goztoa eta kalitatezkoa da.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Ezker abertzaleak udal ordezkariekin batera osatu du lan taldea. HITZA

## Udal hauteskunderi begira batzar irekia egingo dute

Ezker abertzalea 2011ko udal hauteskunderi prestatzen ari da. Larunbatean 11:00etan egingo dute batzarra

### Erredakzioa Anoeta

Urtea bukatzean den honetan, 2011ko maiatzean izango diren Udal hauteskunderi prestatzen hasiak dira herri asko. Hori da anoetarren kasua ere. 2007. urtean hasitako legegintzaldia aurrera doa eta udal ordezkariekin batera, lan talde bat osatu dute.

Anoetako ezker abertzaleko kideak «hiru urte eta erdi hauetan ekimen asko abiarazi ditugu Udaletik. Hala ere, hainbat proiektu bidean geratu zaizkigu» azaldu dute. Krisi ekonomikoaren ondorioz, «egoera ekonomiko txarra bizitzea tokatu zaigu eta nahi ge-

nituzkeen gauza guztiak ezin izan ditugu egin» azpimarratu dute.

Anoetako ezker abertzaleak jakinarazi duenez, urte hauetan Udaletik egindako lanaren balantzea egiten hasiak dira. Eta hurrengo urteetan egin beharreko en inguruko azterketa ere martxan jarria dute. «Hurrengo hauteskunderi begira, herriaren eta herritarren beharren arabera programa bat osatu nahi dugu» diote. «Orain arte bezala eta herriaren alde lan eginaz, denon artean Anoeta hobe bat eraikitzen jarraitzeko», gaineratu dute.

### Herritarren parte-hartzea

Guzti hau bideratu ahal izateko, «guztion parte-hartzea ezinbestekotzat jotzen dugu, guztiok baitugu zer esana eta zer egina Anoetaren alde» azpimarratzen dute. Horregatik, Anoetako etxe guztietara galdeketa bat helarazi

dute. Ezker abertzaleak, herritarrek galdera sorta hori erantzutera animatu nahi ditu eta era berean, erantzun horiek beraiei helaraztea gustatuko litzaike. «Dagoeneko herritarren erantzunak jasotzen ari gara. Baina beste edozein kezka edo ekarpen izanaz gero gustura jasoko ditugu» diote.

Beraiekin harremanetan jarri nahi izanez gero, *hauteskunderiak2011@gmail.com* helbidea erabili daitekeela gogorarazi nahi izan dute. Etxeetara banatu duten orria Anoetako udaletxeko gutunontzian bota daiteke ere, kartazalean «Eman zure iritzia Anoetaren alde» jarri beharko delarik.

Galdeketa honetan jasotako gaietara erantzuteko eta ekarpen berri guztiak aztertu ahal izateko, larunbatean batzar irekia burutuko dute udaletxean. 11:00etan elkartzeko dira.

## Aiton-amonak, lehen ingeniari genetikoak



### Bioaniztasunetik

Jon Ander Galarraga  
Biologoa

Genetika, geneak aztertzen dituen zientzia da, geneetan dago 'idatzia' bizidun bakoitzaren itxura, gaixotasuneko izango duen sentsibilitatea edota izaeraren gehiengo bat, azken finean dena dago geneetan! Genetika oso zientzia berria da, izan ere giza genoma (gure geneen mapa) orain gutxi egin da, terapia genetikoaren (geneen bidez gaixotasunak sendatzea) ezarpenak ere berriak dira eta seguruenik genetikari buruzko lizentziatuak oso urriak dira.

Baina genetikaren zientzia sortu aurretik, gure aitona-amonak bazekiten zerbaitek geneei buruz. Beraiek ez zeukaten inolako tramankulu modernorik geneak aztertzeko, baina bazuten gaur egun oso gutxi erabiltzen dugun erreminta oso baliotsu bat, belu-naldietan zeharreko esperientzia, ahoz-ahoz pasatutakoa.

Gogoratzen naiz udako arratsalde bero batean, nola behin Altxo-Azpin gizon bat eta beraren biloba etorri zirela gurera behi bat soka batetik zutela behiaren zatitza ur eske eta nola mangera batetik behiari ura eman zirela esanez. Behi hura urruneko baserri batetara zeramatzen hango zezen 'sendo' batek estali zedin. Pertsona horiek ez zekiten genetikari buruz ezer, baina bazekiten zezen sendo harekin estaltzen zen behiak, txekor sendoak emango zituela eta are gehiago, zenbat eta urrunagokoa izan estaliko zuen zezena, orduan eta sendoagoak izango zirela haren txahalak.

Jakina zen ere, oilategian noizean behinka oilarra aldatu egin behar zela, 'hanka okerreko' oilaskoak eduki nahi ez bazen. Ba-

zekiten ere asto bat zaldi batek estaltzen bazuen, beren kumea (mandoa) antzua zela, baina astoaren indarra zuela eta zaldia bezain sendoa izan zitekeela, bi animalia moten ezaugarrien nahasteak animalia hobeak ematen zituen eta.

Artzainek ere artzain zakurtzat ez zuten edozein zakur erabiltzen, zakur bizkorrak nahi zituzten, artaldea batuta mantentzeko sena zuten zakurrak, eta noski, hauetako bat oso ardi zain ona ateratzen bazen, bere kumeak edukitzea ere oso interesgarria zen.

Zakurren kasua benetan berezia da, izan ere gure aitona-amonak oso esperimentatu zuten zakurrekin, gaur egungo zakur arrazak sortu arte. Betizuak zaintzeko adibidez zakur handiak, sendoak eta aho handikoak aukeratzen zituzten, gaur egungo Enkarterrietako Billanoa edo Gasteizko Patxo deritzen euskal zakur arraza autoktonoak sortuz. Etxea zaintzeko eta bertako sagu eta arratoiak harrapatzeko zakur arraza autoktonoak sortuz. Etxea zaintzeko eta bertako sagu eta arratoiak harrapatzeko zakur arraza autoktonoak sortuz. Etxea zaintzeko eta bertako sagu eta arratoiak harrapatzeko zakur arraza autoktonoak sortuz. Etxea zaintzeko eta bertako sagu eta arratoiak harrapatzeko zakur arraza autoktonoak sortuz.

Gure arbasoek ez zekiten zer zen gene bat, baina beraien animalien gaixotasun genetikoak ekiditen bazekiten, ez zeukaten gene-sekuentziagailu modernorik, baina animalia arraza ezberdinak sortu zituzten, egia esan, ez zitzaizkion inporta zer zen gene bat, beraientzat garrantzitsuena ganadu osasuntsua edukitzea zen, hortik aurrera... bost axola!

Amaitzeko eta ohiturari jarraituz, ene irakurleek informazio gehiago nahi badute <http://bioaniztasunetik.blogspot.com> blogean aurkituko dute eta iradokizunak, kexak edo nirekin kontaktuan jartzeko, [bioaniztasunetik@hotmail.com](mailto:bioaniztasunetik@hotmail.com).

Izan zoriontsu eta... zaindu zuten geneak!

### Irudia Tolosa



## JAVIER ORTIZENA, ARGAZKIRIK ONENA

Inauterietako maskara izeneko argazkia izan da 2011ko Tolosako Egutegiko azalerako aukeraturiko irudia. 41 parte-hartzaile izan ditu Tolosagasko eta Tolargik antolatzen duten ekimenak. Egutegiaren banaketa hilaren 25era bitarte egingo dute

Zerkausan, 09:30etik 12:30era. Hortik aurrera, Tolargi eta Tolosagasaren bulegoetan ere eskatu ahalgo da. Datorren urteko gaia, Tolosa eta berdintasuna izan beharko da parte-hartzaileek argazkien bidez irudikatu beharko dutena. I. TERRADILLOS.

### ALOKAIRUA

■ **Baserría edo borda.** Baserría edo borda xume bat alokatuko genuke. Tolosaldean edota Leitzaldea inguruan izatea nahi genuke. Interesatuak deitu ondorengo telefono zenbakira: 634 45 9110.

### LANA

■ **Garbitzailea.** Jatetxe batek, sukaldako garbitzaile lanak egiteko pertsona bat behar du. Lana, asteburuetan egingo behar harko luke. Interesa duenak, 617 438 819 telefono zenbakira deitu beharko du.

## Iragarki laburrak

**Zizurkil**



**FESTA BOROBILA URKAMENDIN**

Zizurkilgo Urkamendi elkarteak 25. urteurrena ospatu zuen larunbatean hainbat ekitaldiarekin. Goizean hainbat haur elkartu ziren basketballa bere txerinduekin eta ginkana egin zuten. Ekitaldi nagusia baobabak izan zen. Elkarteak 1996tik urtero Piantziako Tourreko lehen euskalduna omentzen du. Aurten orain arte omentutako guztiak elkartu nahi izan zituzten eta ia guztiak bildu ziren Urkamendin. Juanma Garate (aurretengo lehen euskalduna), Marino Lagrera, Abraham Olano, Txente Garcia, Haimar Zubeldia, Iker Camacho, Enritz hurrigabeteberria eta Mikel Astariza. Baobabatzeko ehun lagun inguru elkartu zuten. [Jesús Ruiz](#)

**Amasa-Villabona**



**DANTZA EGINEZ OSPATU DUTE**

Villabonako Oinkari taldeak 35 urte bete ditu dantzan eta asteburuan burutu ditu ospakizunak. Igandean, besteak beste, dantza zak plazan mutuen kuskizun berria erretrenatu zuten. Eguraldi txarra zela eta Beasnañan frontoan egin zuten emanaldia. Ondoren, Aburuza sagardotegian bildu ziren dantzari eta dantzari ohiak. [sax](#)

**Anoeta**



**XEXILI EGUN ALAIA**

Xexili Egun alai ospatu zuten Loatzko Musika Eskolakoek Anoetan. Erromeria giroa nagusitu zen goizean gazteek herriko plazan inguruan. Kalean aritu ziren bazter guztiak esnatzen eta ondoren etxeko txikienentzako moduko talerak egin zituzten. Ondoren Loatzoko txurak emanaldia egin zuten plazan. Emanaldiaren ondotik, musikaren sasoak eta txarangaren jarduna izan zen. Aratsaldean ere izan zuten kanturako eta dantzarako aukera ugari. [sax](#)

**OPARI BAT ERAMAN ZURE EROSKETAREKIN BATERA IRAGARRIA ERAKUTSIAZ (azaroak 30 arte)**

San Frantzisko, 23 Tolosa • Tel.: 943655719  
[www.tantardenda.com](http://www.tantardenda.com)

**Tolosa**



**BABARRUNAREN OMENEZ**

Babarrun Astearen baitan hainbat ekitaldi izan dira. Egun nagusiena larunbatean izan zen. Azoka Berezia egin baitzen Trianguloa plazan. Jende ugari joan zen azokara eta, besteak beste, Babarrunaren Kofradiakeek bere jaki preziatua banatu zuten. [sax](#)

**Aduna**



**Ugarte**



**40 KILO 60 LAGUNENTZAT**

60 lagunetik gora bildu ziren afatzeko eta 40 kilo gatzaina erre zituzten Amezetako Ugarte auzoan. Gaztainer gain sailheska eta gatzak ere izan ziren afatzeko. Antolatzaileek azaldu dutenez, «oso giro polita sortu zen». Afalondan Jose Otamendi ugartearen bertsoetan aritu zen. [sax](#)

**ERAIKIN BERRIA INAUGURATUTA**

Adunako Herri Eskolak inauguratu berri du gehitu dituen eraikin berria. Txiki, gazte eta helduek, guztiak parte hartu zuten egun berezi horretan. Agurrak dantatu, musika jo, bertsoak abestu, zinta moztu, bistaldia, pintxoak, denetarik izan zuten ekitaldiak. Eraikin berriaren estreinaldia ospatzeko, erakundeetako hainbat ordezkari izan ziren bertan. Mirari Garmentia zuzendariak eskola handitzeko egindako ahalegina eskertu zuen. Guztiak pozik agertu ziren eraikin berriarekin. [sax](#)

**egindezagunurratsa**

**U8** eman zure atxikimendua  
**Manifestazio Nazionala**  
 eskuldiak bazterrekin sukai berriekin sukai berriekin

**Kirolak****↓ Emaizak****PILOTA**

<b>LAU T'ERDIKO TXAPELKETA</b>	
<b>Finalurrekoak</b>	
<b>Abel Barriola</b>	16
Sebastian Gonzalez	22

**GIPUZKOAKO TXAPELKETA**

<b>Mugika-Iruretagoiena</b>	22
Segura	10
<b>Arregi-Aburuza</b>	22
Arrasate	2
<b>Perez-Albeniz</b>	22
Lagunak	20
<b>Labaka-Barandiaran</b>	10
Intxurre	22
<b>Zelaia-Elustondo</b>	22
Ilunpe	1
Aretxabaleta	22
<b>Mugika-Albisu</b>	14
<b>Zabaleta-Zinkunegi</b>	22
Zestoa	10
Mundarro	22
<b>I. Urbieta-A. Galarraga</b>	11
Eibar	1
<b>X. Urbieta-Biain</b>	22
Intza	22
<b>Quina-Otaegi</b>	2
<b>Narbarte-Telletxea</b>	14
<b>Apezetxea-E. Galarraga</b>	22
<b>Onsalo-Zubiri</b>	22
Bergara	14

**SASKIBALOA****LEHEN MAILA**

<b>Zortzigarren jardunaldia</b>	
<b>Take Bide Bide Ibiza</b>	81
Fundacion Baskonia	85

**Sailkapena**

1. Fundacion Baskonia (7-1)
2. Santzurtzi (5-3)
8. Bide Bide Ibiza (3-5).

**FUTBOLA****ERREGIONAL OHOREZKO MAILA**

<b>Hamaikagarren jardunaldia</b>	
<b>Tolosa</b>	2
Anaitasuna	0

**Sailkapena**

1. Pasajes (25 puntu)
2. Hernani (25 puntu)
3. Anaitasuna (22 puntu)
15. Tolosa (12 puntu).

**ERREGIONAL PREFERENTEA**

<b>Hamaikagarren jardunaldia</b>	
Orioko futbol taldea	0
<b>Tolosa 'B'</b>	1
Lagunak	4
<b>Intxurre</b>	1

**Sailkapena**

1. Zestoa (24 puntu)
2. Antzuola (21 puntu)
3. Aretxabaleta 'B' (19 puntu)
9. Tolosa 'B' (13 puntu)
16. Intxurre (3 puntu).

**ARETO FUTBOLA****NAZIONAL A MAILA**

<b>Hamargarren jardunaldia</b>	
Burlata	5
<b>Lauburu Ibarra</b>	5

**Sailkapena**

1. Zierbana (25 puntu)
2. Burgos (19 puntu)
3. Zalatorri Area 99 (19 puntu)
5. Ibarra (18 puntu).

**NAZIONAL B MAILA**

<b>Bederatzigarren jardunaldia</b>	
Orioko tabernak	2
<b>Laskorain Ikastola</b>	4
<b>Irish Pub Shepherd</b>	3
Soloarte	2
Clinica Dental Aldaz	4
<b>Transportes Lakunza</b>	3

**Sailkapena**

1. Concepto Createch (27 puntu)
2. Laskorain ikastola (22 p.)
3. Bilbo (22 puntu)
- Irish Pub Shepherd (9 p.)
13. Transportes Lakunza (7 p.).

# Olasagastik seigarren aldiz jantzi du txapela

Euskal Herriko Aizkora Txapelketa jokatu zen herenegun; Otaegi bosgarren geratu zen eta Mujika seigarren

**Erredakzioa** Asteasu

Seigarren aldiz, Joxe Mari Olasagastik irabazi du Euskal Herriko Lehen mailako Aizkora Txapelketa. Herenegun, Asteasuko pilotalekuan jokatu zen norgehiagoka. 700 lagun inguru hurbildu ziren bertara, sei aizkolarari handien arteko finala ikusteko. Tartean, eskualdeko bi, Joseba Otaegi zizurkildarra eta Jexuxmari Mujika ibartarra.

Final gogorra eta estua izan zen Asteasukoa, eta Olasagastik ezusteko handia eman zuen. Bakoitzak lau kana-erdiko, beste horrenbeste 60 ontzako eta beste lau erdibitu behar izan zituzten. Zale-

ek eta adituek Nazabal jotzen zuten faborito, baina hau bigarren geratu zen, bi minutuko aldearekin. Hasieratik Igeldokoa gailendu zen, lehen enborrean jarri zen aurretik, eta nagusitasuna amaierara arte mantendu zuen. Aipatutako lana egiteko, Igeldorak 35 minutu eta 11 segundo behar izan zituen. Gainontzeko finalistek berriz, tarte txikia atera zioten. Herenegungo garaipenarekin, Anjel Arrospide leaburuarren pare jartzea lortu du Olasagastik. Izan ere, eskualdekoak beste horrenbeste txapela ditu.

Lehia gogorra egon zen Otaegi eta Azurmendiren artean. Zatiirik handiengan laugarren postuan izan zen eskualdekoa, baina azken enborrean aurrea hartu zion goierritarrek eta bosgarren sailkatu zen Joseba Otaegi. Jexuxmari Mugikak berriz, hobetu egin zuen azken sailkatuen azken 14 urteotako denborarik onena, 40 minutu eta 45 segundo.



Jendez lepo bete zen Asteasuko pilotalekua herenegun. HITZA

## Migelmari Baroja garaile Urdiña Txikiko Xake azkarreko txapelketan

**Erredakzioa** Tolosa

Pasa den asteburuan Tolosako Urdiña Txiki elkaratek urtero antolatzen duen xake azkarreko txapelketa jokatu zen. Eskualde osoko 23 jokalarik hartu zuten parte.

Txapelketa oso lehiatua izan zen. Bi zatitan jokatu zen. Lehen zatian jokalariek bi multzotan banatu ziren eta multzo bakoitzean denen arteko liga jokatu zen. Bigarren zatian bi multzoak sailkapenaren arabera gurutzatu ziren. Partida guztiak bost minutukoak izan ziren, erritmo bizi-bizian.

Bertako jokalariek izan ziren nagusi, bai multzoetan eta baita ondorengo gurutzaketetan ere. Horrela, Tolosa-Ibarrakoek hartu zituzten podioko lehen hiru postuak. Migelmari Baroja izan zen txapeladuna, Xabier Mujika bigarrena eta Iñaki Etxeberria hirugarrena. Infantil hoberenaren saria berriz Danel Intxaurrendok eraman zuen.



Urdiña Txikiko txapelketa. HITZA

**Hilberria****MARIAN URIA MANTEROLA**

Zarautzen hil zen, azaroaren 19an

Une latz hauetan gurekin egon zaretenoi, esker mila.

Etxekoak

Zarautz, 2010eko azaroaren 23a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak urteurrenak eskertzak

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**ESKELAK • 18:00ak arte hartzen ditugu • [tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info](mailto:tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info) / Tel.: 943-65 56 95

**HILETAREN BALIOA** Txina Inperiala

Funeraria Vascongada ere pertsona bakoitzak bere neurriko hileta izan behar duela. Horregatik, alor horretan lider garenaz, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Bereskurazina da galdu duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena emazagoa izan dadin.

**FUNERARIA VASCONGADA** EHORZKETAK

902 402 900

[www.funerariavascongada.com](http://www.funerariavascongada.com)

# Idiazabalgo Jon Erguin garaile XVIII. Mendiatioan

Herenegun jokaturako proban eguraldiak ez zuen lagundu, baina hala ere 53 lagunek hartu zuten parte

**Erredakzioa** Amasa

Jon Erguin goierritarrak irabazi du Amasako Mendiatioa. Herenegun goizean jokatu zen urteroko txirrindularien hitzordua. 53 lagunek hartu zuten parte, tartean, emakume bakarrak.

Eguraldiak ez zuen lagundu,

eta euria nahiz lokatza izan ziren protagonistetako batzuk. Amasako Jai Batzordeak antolatu zuen proba Villabonako Udalaren laguntzarekin.

Erguin Idiazabalkoaren atzetik Jon Aperribai iritsi zen helmugara. Bertakoei dagokionean berriz, Eneko Gurrutxaga izan zen lehendabiziko sailkatua. Hau, sailkapen orokorrean, seigarren geratu zen.

Aipatu bezala emakume bakarrak hartu zuen parte, Aitziber Ibarbiak. Honek maila oso ona erakutsi zuen, eta lan bikaina egin zuen.



Erguinek irabazi zuen Mendiatioa; eguraldiak ez zuen lagundu igande goizeko proban. HITZA



## Galdu arren oraindik finalera iristeko aukerak baditu Barriolak

Larunbatean 22-16 galdu zuen Martinez de Irujoren aurkakoan; ligaxkako hurrengo partida Titinen aurka

**Erredakzioa** Leitza

Iberoko pilotariarekin ezin izan zuen larunbatean Abel Barriolak. Juan Martinez de Irujok 22-16 irabazi zion leitzarrari. Ligaxkako bigarren jardunaldiak jokatu dira asteburuan. Herenegun, Gonzalez eta Titin neurtu ziren Logroñoko Adarraga pilotalekuan. Bertan, Iparraldeko pilota-

ria izan zen garaile, 22-20ko emaitzarekin.

**Partidaren hasieran, Barriola nagusi**

Larunbatekoan, partidako lehen tantoa Irujorena izan zen arren, norgehiagokako lehen zatian Barriola izan zen jaun eta jabe. Orduan, Irujoren erreakzioa etorri zen. Iberokoa aldeak murrizten hasi zen eta eskualdekoarengandik puntu bira jarri ere (10-12).

Minutu gutxira Iberokoaren erreakzioa etorri zen. 16-16 berdinketaren ostean, Irujo izan zen jaun eta jabe kantxan eta garaipena lortu zuen 22-16ko emaitzarekin.

**Finala gero eta gertuago**

Abel Barriolak, Juan Martinez de Irujok, eta Augusto Ibañez Titinek eta 2009ko txapelduna izan zen Sebastian Gonzalezek finalean izateko aukerak izaten jarraitzen dute.

Leitzako atzelariak Titin III.aren aurka jokaturako du aste-buru honetan eta Gonzalezek berriz, Martinez de Irujori aurre egin beharko dio. Finalerdietako ligaxkako azken partidak izango dira hauek. Orain arteko emaitzen arabera, Iberokoa da txapela eskuratzen aukera gehien dituen pilotaria, eta bigarren, Gonzalezek. Abenduaren 12an ospatuko da finala.

## Euskadiko Lokotx-biltze Txapelketan laugarren geratu da Garmendia

Larunbatean jokatu zen norgehiagoka; Baliarraingoak aitortu «gaizki» aritu zela eta ez zela bere eguna izan


**Erredakzioa** Baliarrain

Maika Ariztegi eta Fernando Etxegarai nafarrak dira aurten ere Euskadiko Lokotx-biltze Txapelketako irabazleak. Larunbatean arratsaldean jokatu zen txapelketa, Ozetako kiroldegian (Araba). Bertan lehiatu zen Ene-

ko Garmendia, Baliarraingoa. Hau laugarren geratu zen.

Gizonezkoetan zortzi kirolari lehiatu ziren, lauko bi txandatan banatuta.

Aurreko bi urteetan eta aurten go Zazpi Herrialdeen Arteko Txapelketan Garmendia izan zen txapeldunorde, baina larunbatekoan, txapelketan lehen aldiz jardun duen Goldarazena nafarra gailendu zitzaion. Garmendiak ez zion aitzakiarik jarri laugarren sailkatua izanari, «gaizki» aritu zela aitortu zuen. Prestakuntza aldetik oso ongi zegoela, baina ez zela bere eguna izan.



### ① Otordua

**Eluska Jatetxean**  
bi pertsonentzako  
otordua

Euskal-Herria kalea, 12 • IBARRA  
Tel.: 943 671374



### ② Sarrerak

Tolosan ospatuko den  
**Elkartasun Eguneko**  
kontzerturako sarrera pare

Azaroak 27 • Larunbata  
20:30etatik aurrera  
Tolosako Ferialekuan



### ③ Sarrerak

**Saskibalo partidarako**  
2 sarrera pare

Azaroak 28 • 18:00etan  
Donostiako Iunben



**LAGUN ARO GBC**  
Power Electronics Valencia

### ④ Sarrerak

Alurr Dantza taldearen  
**Oinazez** ikuskizunaren  
estrenaldirako 2 sarrera pare

Abenduak 10 • Ostirala  
22:00etan • Tolosako Leidorren



Parte hartzeko deitu edo idatzi: **902-82 02 40 / txokoa@hitza.info** [harpidedunen kodea, izena, herria, eta zehazki eskaintzetan parte hartu nahi duzun garbi adierariz] Aste honetako astearte, asteazken eta ostegunearn, 09:00etatik 17:00etara. Saridunak ostiralearn argitaratuko ditugu.

harpidedunen  
**TXOKOA hitza**



GOIZA	EURIA
ARRATSALDEA	EURIA
BEROENA	10°
HOTZENA	6°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeahitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.  
**Anoetaledea:** 687 410 022. anoetaldea@hitza.info.  
**Ibarralde:** 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info.  
**Leitzalde:** 687 410 118. leitzalde@hitza.info.


**Tolosa Herria Hedabideak S.L.-ko kideak:**



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile



**'Hitza' diruz lagutzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil




**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agurrak



**Urte askoan!**

Birraitona Juan Bautista Balerdik atzo 84 urte, eta Janitz Irizar Terradillosek gaur urte bat. Zorionak familiaren partetik.



**Urte askoan!**

**Aner Gorritxategi Artola (Tolosa).** Gaur urte bat. Patxo handi bat amak eta aitak.

urtebetetzeak

urrezko ezteiak

ezkontzak

jaioberriak

jaunartzeak...

agurrak

**agurrak**

Mesedez,  
ekarri  
argazkia  
bi egun  
lehenago.



**Zorionak!**

**Zorionak Agurtzane.** Gertatu zaigun gauzarik hobereana zara. Ondo pasa urtebetetze eguna zure semetxo, senartxo eta Lindisfarme Way-ko portalean biltzen zareten guztiekin. Maria Pilar eta Iosu. Ibarretik.

# Kantu lehiaketako hiru lehen saritik bi eskualdera

Ainhoa Barandiaran amasarra eta Aiora Irazusta zizurkildarra binaka, eta Keiran talde alegiarrak, saridunak

*Zapalduen olerkia* abestu zuten, biolinean Aran Mujika eta pianoan Esti Mujika lagun zituztela. Taldekakoan irabazleak Keiran alegiarrak izan ziren. Beraien sorkuntza den *Denboraren arantzak* abestiarekin eskuratu zuten saria. Hain justu, abesti horrekin lortu zuten sorkuntzaren sari berezia.

**Erredakzioa**

Gipuzkoako Kantu Txapelketako finala izan zen jokoan herenegun Donostiako Antzoki Zaharrean. Hiru mailetatik bitan lehen sariak eskualdera etorri ziren. Ainhoa Barandiaran amasarrak eta Aiora Irazusta zizurkildarrak osatutako bikoteak lortu zuten lehen saria bere mailan. Ken7-ren

Finalean parte hartu zuen beste eskualdekoa Olatz Zubeldia alegiarrak izan zen. Bakarlari bezala parte hartu zuen, baina ezin izan zuen saririk ekarri etxera. Finalean guztira 16 abesti entzun ahal izan ziren eta horietatik zortzi espresuki Txapelketarako sorkuntzakoak izan ziren.



Ezkerretik eskuinera: Aran Mujika, Ainhoa Barandiaran, Aiora Irazusta eta Esti Mujika. HITZA

**URREA  
EROSTEN  
DUT**

**Momentuko ordainketa eskura**

**Aldatu ezazu urrea euroen truke**

**Edozein eskaintza hobetzen dugu**

**TASAZORIK ONENA !!**

**Rondilla kalea 25, beheka**